

ITSASU ITXASSOU

15

HERRI ALDIZKARIA UZTAILA 2025 JUILLET BULLETIN MUNICIPAL



Le Balaki sous toutes ces formes sera inauguré le samedi 23 août 2025, à l'occasion des fêtes locales. La mairie d'Itxassou est heureuse de vous convier à cet événement, et vous accueillera là chez vous !

Balaki guzien estreinaldia besta larunbatez ospatuko da, 2025eko agorrilaren 23an. Itsasuko Herriko etxeak atsegin handirekin gomitatzen zaituzte gertakari alai hortarat, eta ongi etorria eginen dautzue hor zuen etxean !

ÉDITO

Auzapezaren hitza



Berriki utzi gaituen Mixel Itçainaren bizi ibilbidea argitan ezarria ginuen azken herri aldizkarian. Beste zenbait herritarrek utzi gaituzte azken hilabetetan, itsasuar asko biltzen ginela familien itzulian eta herriko eliza eta hilerriaren itzulian.

Gerezi bestako antolatzaileek berek, ehunka bazkaltiar bazelarik beren Atharriko jarlekuaren aintzinean xutik, nahi izan dituzte Agur Jauna kantuz omendu zendu berriak ziren herriko hiru laborari, hiru belaunalditakoak eta lau aste barne ehortziak.

Adimen artifizialaren garaian eta dena bakarkako mogikor leiho delarik, elkartearen eta elkartasunaren adierazpen kolektiboak oinazearen gozagailu dira, altxor ezin preziatuzkoak zaindu eta zabaldu behar direnak gure Euskal Herri hauetan.

Alor alaiago batean, Itsasuk berritz ezagutuko ditu udako hitzordu nagusiak, besteak beste uztaileko Errobiko festibalarekin eta agorriko herriko bestekin. Herriko plazak eta Atharriko atalaia igorriko dituzte nahitaez elkarretaratze alai horien eta beste hainbat oihartzunak.

Berritz jiten zaigu baitaere dantza sokaren erdirat Balaki, bost urte bete beteak joan direlarik herriko etxeak trinketa erosi zuenetik eta eraikin berri berritua idekitzen ari denerat.

Itsasuarrak izanen dira besta larunbateko estreinaldiko gomita lehen eta nagusiak, eta Balaki gehienik herritarren ganik baliatua bada erraiten ahalko da proiektua kausitua dela.

Zuen herriko hautetsi guziak geldi geldia ari dira, bidean eta asmotan diren obrekin. Bada nahi duenarentzat nundik lotu.

Uda bikaina herritar guziei ! Goza erdi betea den edalontzitik, eta gogotsu abia uda ondokoari!

Mixel HIRIBARREN

Itsasuko auzapeza

Mixel Itçaina, dont nous avons mis en lumière le parcours de vie sur le dernier bulletin municipal, vient de nous quitter. Bien d'autres départs ont endeuillés et rassemblés ces derniers mois les itsasuar autour des familles, de l'église et de son cimetière.

Les organisateurs du repas de la fête des cerises eux-mêmes, n'ont pas manqué, devant des centaines de convives debout à leur table d'Atharri, de dédier l'Agur Jaunak aux décès de trois agriculteurs de générations différentes en l'espace de quelques semaines.

A l'ère du tout écran individuel et de l'intelligence artificielle, l'expression collective de l'empathie et de la solidarité est un héritage culturel qu'il faut préserver et continuer à cultiver ensemble dans nos villages du Pays Basque.

Dans un registre plus optimiste, Itxassou va retrouver les grands rendez-vous d'été, avec son Festival Errobiko en juillet et ses Fêtes Patronales au mois d'août. La place du fronton et l'esplanade d'Atharri ne manqueront pas de renvoyer l'écho de ces joyeux rassemblements et de bien d'autres.

Le Balaki revient aussi dans la danse, après cinq années entières écoulées depuis les premières démarches d'acquisition du trinquet par la mairie, jusqu'à la livraison de ce complexe flambant neuf.

Les Itsasuar seront les invités privilégiés de l'inauguration qui aura lieu le samedi des fêtes, et c'est la fréquentation de ce site par les habitants du village qui validera la réussite de ce projet.

Tous vos élus municipaux sont sur le pont, avec divers chantiers communaux en cours et en projet pour les mois et les années qui viennent.

Très bel été à toutes et tous ! Efforcez vous de regarder le verre à moitié plein, et beaucoup d'enthousiasme à vous pour la rentrée prochaine !

Mixel HIRIBARREN

Maire d'Itxassou

Itsasuko Herriko Etxea - Mairie d'Itxassou
05 59 29 75 36 - Email : accueil@itxassou.fr
Site : www.itxassou.fr

Mise en page / Diseinua / Itsasuko Herriko etxea

**Impression sur papier recyclé :
Imprimerie Mendiboure Arizmendi**

SITE INTERNET ET INTRAMUROS

Pour rester informés en temps réel de toute l'actualité du village, des évènements à venir, des alertes, de l'actualité ou des informations pratiques, pensez à consulter le site internet de la commune **www.itxassou.fr**. Denbora errealean herriko aktualitate guziez, geroko gertakariez, alertez, aktualitateaz edo informazio praktikoez informaturik egoteko, pentsa ezazu **www.itxassou.fr** herriko webgunea kontsultatzea.

Les nouvelles et événements d'Itxassou peuvent vous parvenir à toute heure. Il suffit de télécharger l'application intramuros sur votre téléphone portable sans oublier d'activer la notification. **<https://appli-intramuros.fr/>**. Telekarga zazu aplikazione hori zure telefona mugikorrean. Herriko berri eta gertakari guzien jakinean izanen zira orenez oren.



AURKIBIDEA / SOMMAIRE

BERRIAK / ACTUALITÉS

Elkargoak enpresa ttipiak laguntzen / aides aux petites entreprises	4
Maison de l'habitat et de l'énergie : etxeak berritzeko orduan/ à l'heure des travaux de rénovation	4

FINANTZIAK / FINANCES

Ahobatez bozkatuak 2024ko herriko kontuak eta 2025eko aurrekontua	5
Comptes financiers 2024 et budget prévisionnel 2025 votés à l'unanimité	5
konduak : funtzionamendu kondu eta aurrekonduak	6
Comptes financiers de fonctionnement 2024 et budget prévisionnel 2025	
konduak : inbeztizamendu kondu eta aurrekonduak	7
Comptes financiers d'investissement 2024 et budget prévisionnel 2025	

BERRIAK / ACTUALITÉS

Laster bi mediku gehiago Itsasun/ prochainement deux nouveaux médecins	8
Hobeki Pôle santé : bostetarik lau beterik/ déjà réservés quatre sur cinq	9
Attania : bizitegi iraunkorraren bidetik / un habitat durable s'implante à Itxassou	10
Zortzi etxe altxatuko Ordokian / huit maisons du COL à Ordokia	11
Kurutzaia : herriak berak berrituko / la commune garde la main sur la rénovation	11
Balaki : besta larunbatez estreinaldia / inauguration le samedi des fêtes	12
Balaki : Ostatu jatetxeko gela eta komertzioa alokatuak / le bar petite restauration en location gérance	13
Balaki escalade : modu ezberdinak paretan gora trebatzeko / plusieurs formules pour grimper aux murs	14
Balaki trinquet : Itsasuarra behar duena bere eta gaineratekoak denei / des crêneaux réservés au club et tous les autres ouverts	15
Balaki : Balakik beste itxura batzu har zezazkeen/ Balaki aurait pu prendre d'autres allures	16
Balaki lehen : atxikimendua ene sorterriari / pour témoigner à mon village natal mon attachement	17
Txik Txak : geldigune bat berria aparkalekuarekin / un nouvel emplacement avec du stationnement	18
Tailer numerikoen bilana / bilan des ateliers numériques	18
Irigoinbehera La Nive : lehenasuna bigarren eskukoari / ressourcerie ouverte	19
Alerta jotzeko orduan/ pour alerter la population	20
Eskola garraioko izen emateak / inscriptions transports scolaires rentrée prochaine	20

ZOZIALA / SOCIAL

CCAS Pirinio atlantikoetako Autonomiako departamendu etxea	21
Maison départementale de l'Autonomie des Pyrénées Atlantiques	
CCAS ohoinkeriaz mesfidatzea / sensibilisation aux arnaques	21
CCAS Berotze eta uholde arriskuak	22
PAPI Nive : prévention inondations / uholdetarik gerizatu	22
CCAS sensazioak trotinetan jaustearrekin / sensations garanties avec la descente en trottinette	23
Retour en images des activités du CCAS hiver 2025	23
CCAS aste bat pantailarik gabe gazteentzat / une semaine sans écran pour les plus jeunes	24
Gazten udako agenda / nouvelles dates pour les activités d'été pour les jeunes	24

HEZKUNTZA / EDUCATION

Eskola publikoa : gai frango jorratu da / année riche en découvertes	25
San Josep : Amalur eta Basajaun	26
Arrokagarai ikastola : ikastola museo bihurtu gau batez / L'ikastola transformée en musée éphémère	27

EUSKARA

Euskara : mintzaia : « haurrak euskaraz loratzen lagundu » conférence : « aider les enfants à s'épanouir en euskara »	28
Etxauri : Gereziak, eskalada, eta euskara	28
Euskara : elkartei zuzendu kanpaina / campagne de communication envers les associations	29
Euskara : larrazkenerako diagnostikoa / diagnostic prévu en automne	29

KULTURA / CULTURE

Bigarren liburu kutxa bat / une deuxième boîte à livres	30
Artzamendi : Eihera harriak lau haizetara / des pierres de moulins aux quatre vents	31

ELKARTE BIZIA / VIE ASSOCIATIVE

32-42

EGUTEGIA / AGENDA

43

Ondoko hilabeteen egutegia / programme des mois à venir sur Itxassou

LEKUKOTASUN/ TEMOIGNAGE

44

Leire Aguerre : Ostalaritza arduratsuan sinesten dut / je crois en une restauration responsable

Elkargoak enpresa ttipiak laguntzen / aides aux petites entreprises

Votre commerce ou atelier est au cœur de nos villages?

LA COMMUNAUTÉ PAYS BASQUE ET LA RÉGION NOUVELLE-AQUITAINE VOUS ACCOMPAGNENT !



- Bilan personnalisé
- Soutien à la transmission
- Jusqu'à 10 000€ pour moderniser votre activité

Ensemble, dynamisons nos bourgs et favorisons l'artisanat et le commerce de proximité !

Contactez-nous : j.marion@communaute-paysbasque.fr
www.communaute-paysbasque.fr



Euskal Herriko Hiri Elkargoak eta Akitania Berriko Eskualdeak ondoko bi urterentzat proposatzen dute komertzante eta ofiziale tipien sustengatzeko laguntza bat, ACP deitua, eta aintzineko OCM ekintzari jarraitzen dena.

Azpi huntan agertzen den internet loturan aurkitzen ahal da xehetasun gehiago :

La Communauté d'Agglomération Pays Basque propose avec la Région Nouvelle-Aquitaine la mise en place **d'un nouveau dispositif d'accompagnement en faveur des commerçants et des artisans (moins de 10 emplois), dénommé Action Collective de Proximité (ACP).**

Ce dispositif prend la suite de l'Opération Collective de Modernisation (OCM) mis en œuvre sur la période 2017-2022.

<https://www.communaute-paysbasque.fr/aides-et-financements/aide-et-financement/action-collective-de-proximite-acp-du-pays-basque>

Maison de l'habitat et de l'énergie

Etxeak berritzeko orduan

Bizilekuari eta etxebizitzari buruzko zure galderei erantzuteko erreferentziako bulego erreala da Habitat et Energie Etxea, Euskal Herri osoko herritarrei idekia.

Modu neutral eta personalizatuan laguntzea da helburu, zure hobekuntza obrek (energia aurrezte lanak, zahartzeari egokitzea, zure bizitokiaren segurtatzea) ahalik eta emaitza hoberenak izan ditzaten eta zure beharrei ahalik eta hobekien erantzun diezaien, aldi berean tokiko enpresei mesede eginez.

Zuen eskaera Bizileku eta Energia Etxeak aholkulari aditu bati helaraziko zaio, zuekin berriz harremanetan hasiko dena, errezibitzeko leku batean, hitzordu pertsonalizatua adosteko : hurbilena, Itsasun, Errobi poloan, hilabeteko 4. ostegunetan, 9etatik 17:30etara, Errobi lan eremuko bideko 547.

A l'heure des travaux de rénovation

Pour répondre à vos questions sur l'habitat et le logement, la Maison de l'Habitat et de l'énergie est ouverte à tous les habitants du Pays Basque.

L'objectif est de vous accompagner de façon neutre et personnalisée pour que tous vos travaux d'amélioration (travaux économies d'énergie, adaptation à la perte d'autonomie et au vieillissement, mise en sécurité de votre logement) soient les plus performants possible, et répondent au mieux à vos besoins, tout en bénéficiant aux entreprises locales.

Comment être accompagné ?

Pour toute demande de rendez-vous, vous devez au préalable :

- soit renseigner le formulaire en ligne qui correspond à votre profil via le lien suivant : <https://www.communaute-paysbasque.fr/logement-et-urbanisme/la-maison-de-l'habitat-et-de-l'energie-pays-basque>
- soit appeler au 05 59 44 77 80;
- soit par mail à : maison.habitat@communaute-paysbasque.fr


Votre demande sera transmise à un conseiller expert qui reprendra contact avec vous pour convenir d'un rendez-vous personnalisé dans l'un des lieux d'accueil : le plus proche étant situé à Itxassou, au pôle Errobi, 547 Errobi lan eremuko bidea, **les 4èmes jeudis de chaque mois, de 9h à 12h30,**



Ahobatez bozkatuak 2024ko herriko kontuak eta 2025eko aurrekontua

Compte financier 2024 et budget prévisionnel 2025 votés à l'unanimité

LES PRINCIPES BUDGÉTAIRES



Quelques ratios financiers.....

Capacité de désendettement : 4,55 ans

= nombre d'années nécessaires à la collectivité pour qu'elle éteigne sa dette en y consacrant la totalité de son épargne.

La situation d'une collectivité est inquiétante lorsque le nombre d'années pour rembourser la dette est supérieur à 12. A partir de 15 ans, la collectivité est dans le rouge.

Taux d'endettement : 11,41 %

Critère de bonne gestion.... L'annuité ne doit pas dépasser 20% des recettes réelles de fonctionnement.

Annuité dette (capital + intérêts) 239 362.85 € / Recettes réelles de fonct. 2 097 401.15 €

Coût des dépenses de personnel 38 %

Le ratio convenable doit être situé entre 35 à 50 % des dépenses de Fonctionnement.

Herriko kontseiluak urte guzietz apiril erdia aintzin bozkatzeko herriko buxetak. 2024ko kontuak eta 2025eko aintzin buxeta aho batez bozkatu ditu herriko kontseiluak 2025eko apirilaren 8an.

Ikusten ahal da kontseilu horren bilduma herriko etxeko internet gunean : <https://itxassou.fr/media/itxassou/publications/pvcm-2025-04-08-kontseiluko-bilduma.pdf>

2024 urte guziko finantza kontuak bateratzen ditu funtzionamendu eta inbestizamendu gastuak :

1 621 656.78€ + 2 236 912,24€ = 3 858 668,24€

Bai eta funtzionamendu eta inbestizamendu sartzak :

2 147 401.36€ + 3 670 869.26€ = 5 818 270.62€ (hemen bada 800 000€ maila)

2025eko aintzin buxeta nahitaez orekatu behar da, funtzionamenduan gastu eta sartzak 2 096 000€koak eta inbestizamenduan gastu eta sartzak 2 537 336€koak.

Les budgets de la commune sont votés par le conseil municipal avant la mi-avril de chaque année. Le vote du compte financier 2024 et du budget prévisionnel 2025 ont été validés à l'unanimité des conseillers municipaux en séance du 8 avril 2025.

Le compte rendu est disponible sur le site internet de la mairie : <https://itxassou.fr/media/itxassou/publications/pvcm-2025-04-08-kontseiluko-bilduma.pdf>

Le compte financier unique 2024 totalise :
En dépenses
Fonctionnement + investissement

1 621 756.78€ + 2 236 912.24€ = 3 858 668.24 €

Et en recettes
Fonctionnement + investissement

2 147 401.36 + 3 670 869.26 = 5 818 270.62€ (emprunt 2024 compris pour 800 000€)

Le budget prévisionnel de 2025 est présenté en équilibre recettes/dépenses à hauteur de 2 096 000€ pour le fonctionnement, et à hauteur de 2 537 336€ pour la partie investissement.

Ikasleak sustengatzen ditu herriko etxeak

Lehen, herriko diru laguntza hori automatikoki ematen zitzaien departamenduko beka zuten ikasleei. Bada, Nafarroako Parlamentuko hautetsiek 2024an erabaki dute departamenduko diru laguntza hori gelditzea.

Herriko beka Estatu mailako (CROUS edo beste) beka eskuratzen dutenei (Unibertsitatea, IUT, BTS, eskola handiak...) eta herrian bizi diren ikasleei erreserbatu da. Eskatera txostena errezebitu nahiko duten gazteak, jada herriko etxearekin harremanetan sartzeko ahal dira.

La mairie soutient les étudiants avec une bourse communale


Auparavant, cette bourse communale était automatiquement versée aux étudiants titulaires de la bourse départementale. Or, les élus du Parlement de Navarre ont décidé à la rentrée 2024 de mettre fin au dispositif de bourse départementale. La bourse communale s'adresse aux étudiants bénéficiaires d'une bourse d'Etat (CROUS ou autre) inscrits dans un établissement d'enseignement supérieur reconnu (université, IUT, BTS, grandes écoles...) et résidant sur la commune. Les jeunes désirant recevoir ultérieurement le dossier de demande peuvent d'ores et déjà se faire connaître en mairie.

Funkzionamendu kondu eta aurrekonduak

Compte financier de fonctionnement 2024

et budget prévisionnel 2025

LES DÉPENSES / GASTUAK




EN EUROS		réalisé 2024	Prévisionnel 2025
Chapitre	DEPENSES DE L'EXERCICE	1 621 756	2 096 000
11	charges à caractère général	520 169	701 350
12	charges de personnel et frais assimilés	682 555	762 200
65	autres charges de gestion courante	369 823	459 863
66	charges financières	18 516	40 612
68	dotations aux dépréciations	984	32 200
42	Opérations d'ordre patrimonial	29 708	5 668
'023	virement à la section investissement		94 107

Les charges de personnel constituent la charge principale de fonctionnement suivie de près par les charges à caractère général constituées par toutes les fournitures et achats (achat matériel, fournitures diverses locations matériel etc...).

Les autres charges de gestion courante comprennent entre autres les indemnités aux élus, les forfaits aux écoles et les subventions octroyées aux associations : 67 413€ dont 30 000€ au CCAS. Les charges financières qui sont les intérêts d'emprunt ont augmenté suite au nouvel emprunt effectué pour équilibrer la trésorerie en attendant les subventions de Balaki, le remboursement de la tva et les travaux de voirie prévus, notamment sur « Panekauko bidea » avec renforcement de la circulation piétonne.

LES RECETTES / SARTZEAK



Les recettes de fonctionnement proviennent majoritairement des impôts locaux et taxes diverses (60% au total) et des dotations de l'état. S'y ajoutent les sommes encaissées au titre des prestations fournies à la population (cantine, garderie, loyers et redevances diverses). Vient en complément une partie de l'excédent de fonctionnement.


EN EUROS		réalisé 2024	proposition 2025
chapitre	RECETTES DE L'EXERCICE	2 147 401	2 096 000
'002	excédent de fonctionnement reporté	50 000	100 000
70	produits des services du domaine	150 549	138 900
73	impôts et taxes	514 139	505 829
731	Imposition directe	756 869	736 988
74	Dotations subventions participations	433 314	435 293
75	autres produits de gestion courante	163 355	158 990
13	atténuation de charges	51 506	20 000
76-77	produits financiers et spécifiques	23 438	
'042	opérations de cession d'immobilisation	4 228	

Inbeztizamendu kondu eta aurrekonduak

Compte financier d'investissement 2024


et budget prévisionnel 2025

LES DEPENSES / GASTUAK



	EN EUROS	réalisé CA 2024	prévisionnel 2025 (hors RAR de 535 600€)
	DEPENSES DE L'EXERCICE	2 236 912	2 001 736
16	emprunts & dettes assimilées	187 107	212 100
20	immobilisat° incorporelles	26 294	72 000
21	immobilisat° corporelles	100 470	216 900
23	immobilisations en cours	1 655 829	1 174 589
276	autres créances immobilisées	73 884	43 100
204	subvent° d'équipements versés	189 097	125 000
040	opérations d'ordre de transfert entre sections	4 228	
041	opérations patrimoniales		158 047

LES RECETTES / SARTZEAK



	EN EUROS	réalisé CA 2024	Prévisionnel 2025 (hors RAR de 0 €)
	RECETTES DE L'EXERCICE	3 670 869	2 537 336
001	Excédent d'investissement reporté N-1	1 036 388	1 433 957
1068	excédent de fonction. partiel reporté N-1	994 260	425 644
10	dotation, fonds divers & réserves	173 482	84 220
13	subventions d'investissement reçues	458 498	323 420
16	emprunts & dettes assimilées	889 946	2 000
20	Immobilisations corporelles	510	
27	autres immobilisations financières	81 814	10 272
021	virement de la section fonctionnement		94 107
204	subventions d'équipements versées	6 261	
040	opérations d'ordre de transfert entre sections	29 708	5 668
041	opérations patrimoniales		158 047

En 2025, les principales dépenses (immobilisations en cours) concernent la fin de la réhabilitation du Complexe Balaki et le solde de l'aménagement de la mairie (957 000€ pour l'ensemble) auxquels il faut ajouter les travaux de réfection de la voirie prévus (Panekau bidea essentiellement, limitation vitesse du bourg à 30 km/h) ainsi que ceux déjà réalisés : éboulement de Fagola et Abilaenborda (65 000€).

Le remboursement du capital de la dette s'ajoute à ce budget (212 100€).

Laster bi mediku gehiago Itsasun Prochainement deux nouveaux médecins

Berri ona ekartzen daukute Pierre Lartigau Carricaburu eta Alexandre Levignek, aldizkatuz jarriko baitira 2025 urritik aintzina Ordokian.

Hobeki osasun etxea bururatuko denetik han kokatuko dira elgarrekin bi mediku gazteak, lankide ukanen dutela Denise Machicote medikua.

Très bonne nouvelle pour Itxassou avec l'installation partagée dès octobre 2025 des jeunes médecins Pierre Lartigau Carricaburu et Alexandre Levigne.

A la fin des travaux de Hobeki, les deux jeunes médecins s'y installeront ensemble, en collaboration avec docteur Denise Machicote.



médical de qualité, en lien étroit avec les autres professionnels de santé et les acteurs locaux.

Je rejoins par ailleurs ce projet avec mon collègue et ami Pierre Lartigau, que je connais depuis l'enfance grâce au rugby, fervents joueurs et supporters du Biarritz Olympique.

Pierre Lartigau Carricaburu, 33 urte, Miarritzekoa. Mediku ikasketak Bordalen eginak.

Azken lau urte hautan, mediku ordezkaritzak egin ditut Maulen, Baigorri, eta Miarritzen, eta berriago Kanbon eta Larresoron.

Beti senditu dut tiria landa eta erdi landa eremuei buruz, eta osasun etxe baten giroa arras egokia iduritzen zait.

Gogotsu jarriko naiz beraz Itsasun. Ez dut dudarik konfiantzazko eta hurbileko harremana sortuko dela herritarrekin, eta lagunduko ditudala urte zenbait itsasuar belaunaldi.

Pierre Lartigau Carricaburu, 33 ans, originaire de Biarritz. Études de médecine sur Bordeaux.

Depuis maintenant quatre ans, je pratique en tant que médecin remplaçant, ce qui m'a permis d'exercer dans différents secteurs : Mauléon, Saint-Étienne-de-Baïgorry et Biarritz dans un premier temps, puis plus récemment à Cambo-les-Bains et Larressore.

Le milieu rural et semi-rural m'a toujours attiré, et m'installer au sein d'une maison de santé me semble être le cadre idéal.

C'est donc avec enthousiasme que je m'installe à Itxassou. J'espère pouvoir y

construire une relation de confiance et de proximité avec ses habitants, et accompagner, au fil des années, plusieurs générations d'Itsasuar.

Alexandre Levigne, originaire d'Auvergne, vivant au Pays Basque depuis l'adolescence. Études de médecine sur Bordeaux. Spécialisation en médecine scolaire.

Depuis trois ans, j'exerce comme médecin généraliste remplaçant sur les communes de Cambo-les-Bains, Larressore, Irissarry, Saint-Palais ou encore Baigorri.

Le projet de maison de santé à Itsasu s'inscrit parfaitement dans ma dynamique : offrir aux habitants un suivi

Alexandre Levigne, Auvergne eskualdekoa jitez, Euskal Herrian bizi naiz nerabegoaz geroz. Mediku ikasketak Bordalen eginak, berezitua eskolen medikuntzan.

Badu hiru urte banabilela mediku ordezkatzeak betetzen Kanbon, Larresoron, Irisarrin, Donapaleun eta oraino Baigorri.

Hobeki osasun etxerat ba gatoz ene ikaskide eta adixkidea den Pierre Lartigau rekin, rugby zelaietan haurtzarotik ezagutu gira, elgarrekin jokatu baitugu gaur oraino sustengatzen dugun Miarritzeko BO-n.

Pôle santé HOBEDI : Bostetarik lau beterik / Les quatre cinquième sont déjà réservés



Nola aintzinatuko diren obrak

Ordokian kokatzen den Hobedi proiektuan, obrak hasi dira 2025 apirilean. Oinarriak uda aintzin bururatuko izanen dira. Eta obrak bururatuko dira 2026ko uztailakotz.

Obrak eginen dituzten enpresak

Euskal Herrian kokatuak dira xantier potolo hori altxatuko duten enpresak.

Hobekin jarriko diren osasun lanbideak

Osasun etxea %81 betea da 2025eko uda hastapen hontan

Bertan lan egiteko, hitz hartuak dira :

- Farmaziakoak (eraikinaren beheko guzia hartuz)
- 2 mediku orotarik artatzeko
- Endokrinologoa den mediku bat
- 2 osteopata
- Ortofonista bat
- Neuropsikologo bat
- Bi dentista

2025 urte erditan, gelditzen dira 20 eta 50 m2 arteko 6 gela, saltzekoak ala alokatzekoak.

Gela hauei buruz argibideak eskuratzeko, harremanetan sar daiteke Lisa Minvielle proiektu arduradunarekin 06 38 69 68 04 lisa.minvielle@aedifim.fr

1. Avancée du projet

Les travaux ont commencé en avril 2025. Les fondations seront achevées prochainement. Les travaux se termineront en juillet 2026.

2. Entreprises concernées

Les entreprises avec qui nous travaillons sont des entreprises locales, situées dans le Pays Basque et proche environ.

3. Professionnels qui investissent le projet

Aujourd'hui le pôle de santé est rempli à 81%.

Nous avons :

- la pharmacie Gereziak au rdc
- 2 médecins généralistes
- 1 médecin endocrinologue
- 2 ostéopathes
- 1 orthophoniste
- 1 neuropsychologue
- 2 dentistes

Il reste 6 cabinets disponibles de 20 à 50m2, à la vente ou à la location.

Il est possible de contacter pour une demande d'information à ce sujet : Lisa MINVIELLE - RESPONSABLE PROJET - 06 38 69 68 04 - lisa.minvielle@aedifim.fr



ATTANIA : Bizitegi iraunkorraren bidetik Un habitat durable s'implante à Ixassou



EPFL egiturarentzat Maneco Habitat-k eramaiten duen bizitegi berri proiektua eraikitzen hasteko bezperan da.

Bederatzi apartamenduentzat aintzin erospenak bururatzen ari dira, herrian berean informazio zabaltze jarraiki baten ondorioz : herri aldizkarian, bilkura publikoan, Intramuros-en eta etxe askotako gutun ontzietan ezarritako papertxoak.

Enpresen debisak ez dira oraindik osoki trenkatuak, baina aintzin estimu guzaien arabera bana besteko m² eraiki baliagarria 2400€koa litzateke.

Ohi duen bezala, Maneco Habitat-k obrak hasiko ditu aintzin erospen guziaz baimendu eta enpresak hautatu ondotik.

Eremu hortan kokatua den etxearen deseraikitzeaz, 2025eko udan egitekoa, ekaian berexketan eta berrerabilpenaren berezituak diren enpresak arduratuko dira. Hautu hori osoki sartzen da proiektuaren urrats ekologikoan : ondarkinen baliatzea, eraikinaren moldapen bioklimatikoa energia

xurgatzaile zuhurra izateko, egur pikorrekilako berogailuak bizitegi bakoitzean. Berdeguneen begiratzeak bioaniztasuna fagoritzen du, RE2020 arauak karbono hatz gutiena uzten du.

Le programme immobilier Attania, porté par Maneco Habitat pour le compte de l'EPFL, entre dans une phase décisive.

Les réservations des neuf appartements sont en cours de finalisation, après une campagne d'information soutenue : bulletin municipal, réunion publique, annonces sur Intramuros et distribution de tracts dans les boîtes aux lettres d'Ixassou.

Les devis ne sont pas encore définitifs, mais les estimations tablent sur un coût moyen d'environ 2 400 € le m² utile.

Comme à son habitude, Maneco Habitat engagera les travaux une fois les réservations confirmées et les entreprises sélectionnées.

La déconstruction de la villa existante, prévue à l'été 2025, a été confiée à des entreprises spécialisées dans la déconstruction sélective et le réemploi des matériaux.

Ce choix s'inscrit pleinement dans la démarche écologique du projet : valorisation des déchets, conception bioclimatique réduisant les besoins énergétiques, installation de poêles à granulés dans chaque logement.

La préservation des espaces verts favorise la biodiversité, tandis que le respect de la réglementation RE2020 garantit une faible empreinte carbone.

Zortzi etxe altxatuko Ordokian / Huit maisons du COL à Ordokia



COL langile kooperatiba egiturak, 70 urtez baino gehiagoz Euskal Herrian bizitegi sozial eraikitzen lehiatzen denak, apailatzen ari du proiektu berri bat Itsasuko herrian, Ordokiako zelaian : zortzi bakarkako etxe, BRS moduan lurra alokatuz, T3, T4 eta T5eko edukietakoak.

Helburua argia da : lekuan lekuko bizitegi eskakizunari ihardetsi eta prezio jasangarriko egoitzak eskaini. BRSak, berexiz lur azala eta eraikina, merkeago egiten ditu erosteko egoitzak familientzat.

Eraikitze baimen administratiboak eskuratuak izan dira. COL ari da gosta sarien finkatzen enpresen debisetarik, irabazi murrizta duten familiek erosi ahal izateko nahikeriarekin.

Ordokiako COL etxe horien saltzapena 2025eko udazkenean abiatuko liteke, nahiz COLEk berak dion bezala « deusik ez den oraino finkaturik ».

Kooperatibaren betiko ibilbidetik doa Itsasuko proiektu hau, eskainiz ahalaz herriko langileriar bizitegi iraunkorra, baldintzarik helgarri eta segurizatueta.

Le Comité Ouvrier du Logement (COL), coopérative HLM engagée depuis plus de 70 ans pour l'accession sociale à la propriété dans le Pays basque, prépare un nouveau programme sur la commune, sur le site d'Ordokia : huit maisons individuelles en Bail Réel Solidaire (BRS), de typologies T3, T4 et T5.

L'objectif est clair : proposer des logements accessibles aux habitants et répondre à une demande locale. Le BRS, qui dissocie le foncier du bâti, permet de réduire le coût d'acquisition pour les ménages.

Les autorisations de construire ont été obtenues. Le COL finalise actuellement les coûts de revient à partir des devis des entreprises, avec l'ambition de proposer des prix compatibles avec les ressources des ménages modestes.

Une phase de commercialisation pourrait être lancée à l'automne 2025, même si « rien n'est encore fixé à ce stade », précise le COL.

Ce nouveau programme s'inscrit dans la continuité de l'action de la coopérative, qui œuvre pour loger durablement les actifs du territoire dans des conditions accessibles et sécurisées.

Kurutzaldia : herriak berak berrituko / la commune garde la main sur la rénovation

Itsasuko herriak 2023 erosi zuen Eliza auzoko Kurutzaldea etxea, herritarrek alokatzen ahalko zituzten bizitegi sozialak eskaintzeko.

Bi eginmolde ikertuak izan ziren xeheki, Elkargoko bizitegi eta obra kudeantza zerbitzuen laguntzarekin, ikertuz bide bakotxaren trabak eta abantailak.

Lehen bidea izan zitekeen SOLIHA egiturari ematea eraikinaren berritzea utziz bizitegiak haren esku 50 urtez. SOLIHAK zituen dirustatuko obrak ANAH ren laguntzak eskuratuz, kudeatuko eraikin guzia, eta beretuko aloka sariak mende erdi batez.

Bigarren bideak, azkenean hautetsi guziez baimenduak : herriak berak beregain hartzea obraren kudeantza. Aterabide honekin, eskatzen ahalko dira Estatuko, Eskualdeko, Departamenduko eta Elkargoko diru laguntzak, atxikiz eraikinaren jabetza eta alokairuen kudeantza eta mozkina.

Herriak ideki berri du obra kudeatzailearen hautagaitza. Urrats hau baitezpadakoa izanen da 2025 udazkenetik harat diru laguntzen eskatzeko.

En 2023, la commune a acquis la propriété de Kurutzaldea, dans le quartier de l'église, avec pour objectif d'y créer du logement locatif social accessible aux habitants.

Deux scénarios ont été étudiés en détail, avec l'aide des services habitat et ingénierie de la CAPB, en analysant les avantages et inconvénients de chacun.

La première option consistait à confier le bâtiment à l'organisme SOLIHA via un bail de réhabilitation de 50 ans. SOLIHA aurait alors financé les travaux en mobilisant les aides de l'ANAH, assuré la gestion du bâtiment, et perçu les loyers pour son propre compte pendant toute la durée du bail.

La seconde option, finalement retenue de manière collégiale, repose sur une maîtrise d'ouvrage directe par la commune. Cette solution permet de solliciter les subventions de l'État, de la Région, du Département et de la CAPB, tout en conservant la pleine propriété du bâtiment et le contrôle des loyers dans le temps.

La commune a lancé l'appel d'offres pour désigner une équipe de maîtrise d'œuvre. Cette étape est essentielle pour constituer les dossiers de subventions, qui seront déposés à l'automne 2025.

Balaki : besta larunbatez estreinaldia inauguration le samedi des fêtes



Coût des travaux (hors honoraires, études et équipements spécifiques)
1 622 000€ ht

Montant des subventions accordées :
974 000€ (DETR 300k€, Dept64 145k€, CAPB 179k€, Région NA 100k€, Feder UE 250k€)

Obra gastuak (kondatu gabe bulego gastuak, ikerketak eta ekipamendu bereziak), **1 622 000€**

Diru laguntza adostuak : 974 000€
(DETR 300k€, Dept64 145k€, CAPB 179k€, NA Eskualdea 100k€, Feder UE 250k€)

Hamabost hilabeteko obren ondotik, Balaki xantierra bururatua da. Balakiko bizileku bakotxa elkarte edo ekonomia egituren esku uzteko orduan, konbenioak izenpetuak izan dira Itsasuko herriko etxearekin. Ondotik gakoak emanak izan dira Balakiko eragile bakotxari.

Balakiren estreina ofiziala 2025 agorrilaren 23ko hitzartua da, Itsasuko herriko besta larunbat goizez.

Gorestekoa da obretan parte hartu duten ofiziale guzien jarraipen eta lan kalitatea.

Aipamen berezia merezi dute astez aste eta egunez egun obrei jarraiki diren Hemen eko Mickael Etchegaray arkitekta eta Ramuntxo Saint Pierre TSAko obra kudeatzaileak.

Eskerrak proiektu eder horren obratzen sinetsi, errextu edo lagundu duten guziei.



Itsasuarrak eta Arroka konbenioak izenpetzen Herriko etxean



Après quinze mois de travaux, le chantier du Balaki est terminé. Des conventions de mise à disposition ont été signées entre la mairie d'Ixassou et les acteurs de chacun des lieux de vie. Les clefs ont été remises aux différents acteurs et que vive Balaki.

L'inauguration officielle est prévue le samedi 23 août 2025, jour de l'ouverture des fêtes d'Ixassou 2025.

Saluons l'assiduité et la qualité de travail de l'ensemble des entreprises impliquées dans le projet.

Mention particulière pour le suivi sans faille du chantier par l'architecte Mickael Etchegaray du cabinet Hemen Architecture, et de Ramuntxo Saint Pierre du bureau d'études maître d'œuvre TSA.

Remerciements à tous ceux qui ont cru, contribué ou facilité la réalisation de ce beau projet.

Balaki

Ostatu jatetxeko gela eta komertzioa alokatuak le bar petite restauration en location gérance

Balakiko ostalariaren bilatzeko hautagaitza bat hedatua izan zen 2025eko primaderan, araudi zerrenda zehatzarekin. Bi hautagaitza agertu ziren ostatuaren kudeatzeko, eta herriko etxeak Leire Aguerre-na atxiki zuen.

Leire-k alokairu kudeantzako konbenioa izenpetu zuen herriko etxean apirilean eta ostatuaren idekitzea ospatu ekainaren 20an, itsasuar andana ederraren erdian.

Alokairu kudeantza ez da lehenago herriko etxeak erabiltzen zuen alokairu modelo berdina, bidean ezarri zituelarik adibidez Krakada edo Haize Hegoa.

Aintzineko komertzio abiatze horietan, herriko etxeak egoitza zuen apailatzen eta hunentzat alokairu bat eskuratzen, komertzioaren kudeantza hartzailearen esku gelditzen zela.

Komertzioaren hartzaileek berek beren gain zuten ekipamendu guziaren muntatzea; ondorioz, osoki beren gosturat eramaiten zuten egunerokoa eta hautatzen zuten behar orduan ondokoa.

Balakin, Herriko etxeak ditu erosi altzariak eta tresneriak ostatuko eta sukaldeko, eta geldituko da egoitzaren jabe bezala komertzioaren funtsaren jabe. Eginmolde hau gero gehiago baliatua da itzuliko herrietan. Gastu gehiago behartzen du herriarentzat, bainan esku gehiago dauka luzarat herriak komertzioaren bilakaeran.



Un appel à candidature a été lancé par la mairie au printemps 2025 avec un cahier des charges précis. Deux candidats se sont présentés et Leire Aguerre a été retenue.

Leire a signé la convention de location gérance avec la mairie en avril 2025 et la soirée d'ouverture a eu lieu le 20 juin 2025 en présence de nombreux itsasuar.

La convention de location gérance n'est pas de la même nature que les contrats que la mairie a passés précédemment avec les gestionnaires de Krakada Ateka ou de Haize Hegoa, qui sont aussi des commerces à l'initiative de la mairie d'Ixassou.



Auparavant, la commune avait investi sur ces commerces en s'assurant un montant de location mensuel sur la location des murs, et en créant un fonds de commerce que la mairie met à disposition des gestionnaires.

Ces derniers investissaient eux-mêmes sur tout le matériel d'équipement, et disposaient ensuite du devenir de ce fonds de commerce, en terme de fonctionnement, mais aussi en terme de transmission de l'affaire.

Dans le cas de Balaki ostatua, la commune a équipé la salle et la cuisine de l'établissement sur ses fonds, et restera propriétaire des murs comme du fonds de commerce.

La formule est de plus en plus pratiquée par les communes alentours. Elle impose un investissement supplémentaire à la mairie, mais elle permet à celle ci de garder la main sur le devenir du commerce.

Balaki escalade : modu ezberdinak paretan gora trebatzeko plusieurs formules pour grimper aux murs

Arroka elkarteak Itsasuko herriko etxearekin konbenio berezia izenpetu zuen 2025 ekainaren 26an.

Arroka elkarte bakarraren esku utzia da konbenioz eskalada gela. Lehen artikulua dionaz : « ... errentagarritasun hutsetarat erori gabe, interes orokorra helburu, interes pribaturik gabeko kudeantza eta sozial ekarpena izan behar dira norabide... »

Elkartekoek berek aurkeztu zuten bezala Sanokiko biltzar idekian, 2025eko ekainaren 20an, hauxe izanen da eskalada gelaren antolakuntza irailaren 6 etik aintzina :

* Sei saioko zikloak Itsasuko eskoletako haurrei proposatuak, 10 edo 12 ikasletako haur multxoekin, eskalada irakasle baten ardurapean eta eskolako maixuak lagundurik. Ikasle ttarrotuak hartuko dira, ez ama eskoletakoak.

* Eskalada eskola bat, izen emaiteak idekiak direlarik 2025 ekainaren 20 etik. Denei zabalik, 6 urtetarik 86 urtetarat. Urte guzian segitzen ahalko dira ikasgaiak edo hobekuntza saioak

kidetuz geroz. Asteazken egunaz edo asteko beste bi arratsez saioak.

* Publiko guziari idekiak izanen diren saioak : asteen bi arratsez, aldian aldikoa pagatuz. Bakotxa bere materialarekin hurbildu beharko da, gutienez biranazka. Bietarik bata bederen aditua izan beharko da, segurtasunaren bermatzeko. Arrokako kide boluntario batzuek zainduko dute saioa.

* Saio bereziak urte guziko harpidetza duten kideentzat. Arrokako boluntario batzuek bermatuko dute zaintza orokorra. Beren materialarekin jin behar dute eskaldatzaileek, bietarik bata behar duela aditua izan soka lerroaren bermatzeko.

Jakin behar da ekimen gehienentzat itsasuarrek prezio apalagoak izan dezaketela.

Beraz, ez duda zuzenki hurbiltzeaz ! Edozoin galderentzat :

info@arroka.eus



Une convention a été signée entre la mairie d'Ixassou et l'association Arroka en date du 26 juin 2025.

Le site d'escalade SAE (structure artificielle d'escalade) est mis à disposition exclusive de Arroka.

L'article 1^{er} de la convention stipule que la mise à disposition se fait « dans le cadre d'une gestion désintéressée et d'une utilité sociale qui satisfont l'intérêt général en excluant toute dérive commerciale ».

Comme présenté lors d'une réunion de fin juin à Sanoki, quatre types d'activités seront proposées à partir de la date d'ouverture de la salle d'escalade qui est annoncée pour le 6 septembre 2025 :

* **Des cycles de six séances seront proposés aux élèves des écoles d'Ixassou**, par groupe de 10 à 12 élèves, sous la responsabilité d'un professionnel de l'escalade, accompagné de leur instituteur.

Ces formations ne seront ouvertes qu'aux élèves des classes élémentaires et primaires.


* **Une école d'escalade** qui prend les inscriptions à partir du 20 juin 2025. Ouvert à tous, de 6 à 86 ans. L'affilié pourra suivre les séances d'apprentissage ou de perfectionnement chaque semaine sur toute l'année. Des sessions qui auront lieu sur la journée du mercredi, et sur deux soirées en semaines.

* **Des soirées publiques ouvertes à tous** : deux soirées par semaine en payant à la séance. Les pratiquants devront venir avec leur propre matériel. Au moins un des deux pratiquants devra être expérimenté pour garantir la sécurité de la cordée. Des volontaires formés de l'association Arroka vont assurer l'activité.

* **Des créneaux « club » pour les abonnés à l'année.** Ce temps-là sera assuré par des volontaires formés d'Arroka. Les pratiquants devront venir avec leur propre matériel. Au moins un des deux pratiquants devra être expérimenté pour garantir la sécurité de la cordée.

Sachez que pour la plupart des activités, des prix préférentiels seront proposés aux Itsasuar, donc n'hésitez pas à vous approcher !

Pour toute question : info@arroka.eus




Balaki trinquet : Itsasuarrak behar duena bere eta gainerakoa denei / des créneaux réservés au club et tous les autres ouverts

Neys Georges trinketaren sortzaileak berak zion 1961ean ideki zuelarik Balaki, nahi zuela bere Itsasuko herrian atera zitezen goi mailako kirolariak eta bereziki pilotariak.

Sei hamarkadaz, Itsasuk ezagutu du Iparraldeko hoberenetan ibili den hamar bat pilotari, azkeneko txapeldun hau aintzin, denak Itsasuko etxetarik ateraiak, eta ehundaka gazte pilota jokoetan lehiatu direnak maila ezberdinetan.

Zer da xuxenagorik beraz gaur ikustea baino herriko etxeak Itsasuarrak pilota elkarteari uzten duela trinketaren kudeantza, beste mende erdi batez lehia ditezten kirola huntako joko ezberdinetan herriar gazteak, izan neskak ala mutilak.

Trebatzaile eta jokolari, ez dira gehiago ibiliko auzo herrietako pilotalekuen alokatzen udazkenetik udaberrirart, ukanen baitute herrian kantxa bikaina.



Georges Neys lui-même en 1961 déclarait voir émerger avec le Balaki la jeunesse du village dans le palmarès sportif et en particulier sur celui de la pelote.

En six décennies, Itxassou n'a pas compté moins d'une dizaine de champions de pelote au meilleur niveau, issus des familles du village, et des centaines de jeunes qui ont pratiqué ce sport à des niveaux différents.

Rien de plus évident donc que de voir aujourd'hui la mairie confier la gestion du trinquet Balaki au club Itsasuarrak, pour que perdure encore à Itxassou sur ce prochain demi-siècle l'intérêt des jeunes et moins jeunes, filles ou garçons, pour les diverses spécialités de jeu de pelote en trinquet.

Entraîneurs et joueurs-joueuses de pelote n'iront donc plus courir les trinquets des communes alentours de l'automne au printemps, ils disposeront en priorité de la cancha Balaki.



Klubaz aparte pilotan arizan nahi dutenen alokaldiak ere Itsasuarren eskutik iraganen dira.

Les créneaux de location du trinquet Balaki seront aussi gérés par le club.

Il suffira de réserver sur :

https://app.giltza.fr/site/itxassou_trinquet_balaki

Balakik beste itxura batzu har zezazkeen Balaki aurait pu prendre d'autres allures

Hementxe ikusten diren marrazkiak 2022 ideki zen arxitekta lehiaketan aurkeztuak izan ziren lau arxitekten ganik. Orduan, herriko etxeko hautetsiez eta Balakin inplikaturko ziren elkarte ordezkariez osatua zen batzordeak Hemen eko Mickael Etchegaraien marrazkia zuen atxiki.

Les esquisses que nous présentons ici ont été produites à l'occasion du concours d'architectes qui avait été lancé en 2022 et qui avait permis à la commission composée d'élus de la municipalité et de représentants des associations concernées par le projet de retenir la proposition architecturale de Mickael Etchegaray du cabinet Hemen.



- 1-Chunky architecte
- 2- V2S architecte
- 3- DL architecte
- 4- Mutiko architecte



Balaki mécénat : preziatua eta eskertzekoa / apprécié et remercié

Diruketa publiko handiak engaiatu behar direlarik, legeak baimentzen du mécénat, ordainik gabeko diru ekarpen pribatua.

Itsasuko herriak deia luzatu zien herritarrei eta enpresei diruz laguntzeko Balakiko kirol ekipamenduak. Mécénat egitate horrek, beti pizturik iraunten duenak, hogoita hamar mila euroren biltzeko parada eman du, batzuen ekarpen tipiak besteen ekarpen handiagoa balio zuela, eta denek sustengu ekartzen zutela Balakiko kirol dinamikari.

Ez da publikatu nork zenbat eman duen, baina azpi huntan agertzen dira zerbait edo gehiago ekarri duten guzien izenak.

Herritar guzien ganik onetsia eta preziatua izan bedi baktxaren ekarpena.

L'opération mécénat reste toujours active

Pour aider au financement d'investissements publics, la loi autorise le recours au mécénat.

La commune a sollicité particuliers et entreprises pour soutenir les équipements sportifs du Balaki. L'opération mécénat, **qui reste toujours active**, a permis de recueillir une trentaine de milliers d'euros, avec des montants très divers, qui vont de quelques centaines d'euros à plusieurs milliers d'euros, tous aussi appréciables les uns que les autres, pour conforter le développement de l'activité sportive sur ce complexe Balaki.

Les montants resteront anonymes mais nous publions ici la liste exhaustive de tous ceux qui ont fait un apport à cette opération de mécénat Balaki. Que leur geste soit ainsi apprécié et remercié de tous les itsasuar.

AGUERRE TP - ALTXA - ALZUYETA INTERMARCHÉ - AROTARENA GILLES SCI LANTOKI - AROTARENA PATXI SCI LANTOKI - ATOUT FER - BARADAT GILBERT SAS - BOULANGERIE CELLAN - CAMPING HIRIBERRIA - DE REZOLA IBAN SELARL - DOYHARCABAL ELEC - ELEK'O TERRANOVA FREDERIC - ELKARLAN SARL - ETCHEVERRY CHRISTIAN MENUISERIE - EXPABA - HEURELEC - HOTEL DU FRONTON BONNET - INTER DIFFUSION SA - GARAGE PASCASSIO - LA CELTIQUE INDUSTRIELLE - LAUAK BAT - LOGIS CONFORT ERROBI - MC COIFFURE - MECAGRI - MENDIBOURE SARL - ONA TA BIO - OYHAMBURU BATIMENT - PIXTA BOISSONS - PHARMACIE GEREZIAK - PRESSING GARBI TOKI - TSA - USTABAT

AGUERRE Marie-Angèle - ALFONSO Jean & Marie-Christine - Association ANAI - BANCE Nadège - DENIS Alain - HANNEQUIN INDART Sabine - IRUNGARAY Henri & Solange - JAUREGUY Michel - LENORD Alain - MUNDUBELTZ Armelle - MUNDUBELTZ Michel & Nicole - OURQUIA Gabrielle - PROUX Pascal - PUJOS Miren - SETOAIN Michel & Marie-Carmen - TELLECHEA Xavier - URRUTY Gratien & Marie-France



Balaki : atxikimendua ene sorterriari / pour témoigner à mon village natal mon attachement

Badute gutienez zazpi hamarkada trinketa nolaz eraiki zen plazako auzoan Georges Neysen eskutik oroitzen diren herritarrek, Itsasuarrek elkarteko kide eta parropiako patronajekoek Atharri ezker pareta eta Gaztetxea bururatu berri zituztelarik elizako auzoan.

